

Liburuak

KRITIKA

Euzkadi merezi zuten.

Koldo Izagirre.

Susa. 104 orrialde. 15 euro.

Helduen literatura

Gema Lasarte



“Euskaldunen odolak ez du odolkiyak egiteko ere baliyo”

EUZKADI MEREZI ZUTEN Hordagok argitaratu zuen 1984an. Urte berean, beste batzuen artean, Itxaro Bordaren *Emakumeak idazle* (Txertoa), edota Anjel Lertxundiren *Urtero da aurten* (Erein) liburuek argia ezagutu zuten. Historiaren harira 2002an, Hasier Etxeberriarekin berbetan Koldo Izagirrek zioen, bere literatur ibilbidea buruan, saiatu behar zuela ahaleginak egiten gerora ere interesgarriak izango ziren gauzak idazten. Geltokietako literaturatik urrunduz, horren kontra borrokatuz eta baliabide linguistikoei muzin egin gabe. 25 urte pasatu dira eta pasaiatarrak zerbaitetan arrazoi izango zuen, izan ere, Susak berrargitaratu baitu eleberria. Eta argitalpen berriak kontrazalean laudorio festa eskaintzen dio: “Gaur idatzia bezalako perfekzioz iraun duela denboraren higaturik sufritu gabe, harrigarri moderno estiloaren indarrez”.


Nik esan behar banu, gauzak ez dira gehiegi aldatu duela 25 urtetik hona, izan ere, garai hartan bi bider leitu behar izan nuen eta oraingoan ere sekuentziak, denborak, eta norabideak lerratzeko bi aldiz irakurri behar izan dut. Koldok dio bere prosa poetikoa elipsiek zailtzen dutela. Eta hartara, irakurleak, idazleak abiatutako bidaian bidaiatzeko duela eta egiari zor, Izagirre ulertzeko irakurleak eraman handikoa izan behar du, ez zaio lana neke egin behar.

Baina bidaia honetan espazioek berebiziko indarra hartzen dute: moilak, itsasoak, mendiak, baserri giroak, sagardotegiak, kaleak, trenak... denak ere, Pasaia-Astigarraga ardatz duten ingurumarian. Nobela sekuentziak osatua dago, sekuentzia bakoitzak bere tenore, bere istorioa. Horrela, 1920 eta 30eko hamarkadek hartuko dute hitza, eta ahotza gehienetan Inazio Jauregik, bera izango baita kontakizun honen itzaina. Baina Inazio irakurleari ematen zaion pista bat da istorioak osatzeko eta denbora josteko, izan ere, nobela hasten denetik bukatu arte gertakizun historiko ugari kontatzen baita: baserrian estreinakoz argindarra sartzetik, Indalezio Prieto mitinetan hitz egiten entzuteraino... beste gauza askoren artean. Nire gusturako gehitxo.

Baina espazio, denbora eta sekuentzia bakoitza hizkuntzak bizi-tzen ditu eta nago literatur lan honek egiten duen ekarpenik nagusia, hizkuntza paisaiarena litzatekeela. Hizkuntzak egiten du Euzkadi merezigarri. Eta 25 urte eta gero, bere edertasunean dotore, gerra garaiko semantika dugu lekuko. Krika hautsiaren hotsa, fianbreraren soinu petrala... Moila aldeko euskararen doinua, ahokotasunaren freskura eta umorea: “Halaxe esan zun, neronek entzuna, euskaldunen odolak ez du odolkiyak egiteko ere baliyo”. Eta Más geyo, liburua leitu ta gero. ■

Augustin Zubikarainen biografia

Idazlea eta abertzalea: hara Augustin Zubikarai definitzen duten bi hitz. Joan den astean banatu zen ondarroarraren izena daraman saria, baina horretaz gain, izan da beste motiborik Zubikarainen izena prentsan agertzeko. Ana Urkizak haren biografia idatzi baitu Elkar argitaletxearentzat.



Augustin Zubikarai.
Ana Urkiza.
Elkar.
14 euro.

Andres Urrutia Euskaltzaindiako buruak izkiriatu du liburua-
ren hitzaurrea, eta Urkizak berriz, 2004an zendu zen herrikidearen bizitzako ibilbidea errepasatu du. Kazetaritza-
tik antzerkira, gerratik erbestera, euskalgintzaren ber-
piztea... Mendea bete-bete-
an bizitu zuen Zubikarai. ■

Erronkari eta Ansoko toponimiaz

Juan Karlos Lopez-Mugartza Iriartek lan mardula plazaratu du Euskaltzaindiaren Mendaurre bildumaren barruan. 700 orrialdetik gora ditu Erronkari eta Ansoko toponimiari eskaini dion ikerketak, eta, esan beharrik ez dago, urte askotako lanaren emaitza da. Liburua atal ugarietan banatuta dago, alderdi teoriko eta metodologikoak, historiko-geografikoak, semantikoak, morfologikoak eta fonetikoak desberdintzeko. Toponimiari buruzko liburua izanda, gainera, mapa dotorez hornitu dute edizioa. Henrike Knörri eskaini dio liburua Lopez-Mugartzak, hura izan baitzen ikerketaren gidari. ■



Erronkari eta Ansoko toponimiaz.
J.K. Lopez-Mugartza.
Euskaltzaindia.
737 orrialde.
20 euro.